



UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

2006-2007 ikasturtea

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK

Bi aukeretako bat hautatu, eta bere lau galderei erantzun.

A AUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Baliabide energetikoak.

1.1. Deskribatu, gaurko ustearen arabera, ingurumena gehien errespetatzen duten energia motak. Komentatu horien alde onak eta txarrak.

1.2. Zein da aldea fisio eta fusio nuklearraren artean? Zein da berriztagarritzat jotzen dena eta zergatik? Zein da fusioaren arazo nagusia?

2. aztergaia (2,5 puntu)

Baliabide hidrikoak.

2.1. Egin ziklo hidrológicoaren eskema eta azaldu zergatik den garrantzizkoa plangintza hidrológicoakoa.

2.2. Deskriba itzazu baliabide hidrikoen jaitsiera gerta ez dadin beharrezkoak iruditzen zaizkizun neurri orokorrak.

3. aztergaia (2,5 puntu)

Kanpoko sistema fluidoaren dinamika.

3.1. Irudika ezazu eskema baten bidez, eta azaldu, atmosferaren zirkulazio orokorraren sistema. Azaldu zirkulazio sistema horrek Lurraren klimaren gainean duen eragina.

3.2. Azaldu prezipitazioak sortzen dituzten hodeiak eratzeko moduak.

4. aztergaia (2,5 puntu)

Ziklo biogeokimikoak.

4.1. Sufrearen ziklo biogeokimikoa da gizakiak gehien aldatzen duenetako bat. Zenbateraino iristen da aldaketa hori, eta zein dira ekosistemetan izan ditzakeen ondorioak?

4.2. Zein dira atmosferatik CO₂ kentzen duten karbonoaren prozesuak eta zein CO₂ askatzen dutenak? Nola eragiten dute giza jarduerak ziklo horretan?



1. aztergaia (2,5 puntu)

Hondakinak.

- 1.1. Definitu hondakin erradioaktibo kontzeptua. Deskribatu hondakin erradioaktiboak ezaugarritzeko kontuan hartu beharreko faktoreak.
- 1.2. Aipatu hondakin erradioaktiboak gordetzeko proposatu izan den toki-motaren bat, eta esan zein lirartekeen bere alderdi txarrak.

2. aztergaia (2,5 puntu)

Atmosfera.

- 2.1. Zertan datza eta nola gauzatzen da atmosferaren funtzio erregulatzailerik eta babeslea?
- 2.2. Lurreko atmosferaren funtzio nagusietako bat eguzkiaren erradiazioa iragaztea da. Zein erradiazio mota iragazten dute atmosfera osatzen duten geruzek?

3. aztergaia (2,5 puntu)

Dinamika kontinentalak.

- 3.1. Ur kontinentalen dinamika: iragazketa eta isurketa.
- 3.2. Nola eragin dezake gizakiak ziklo hidrologikoan?

4. aztergaia (2,5 puntu)

Ekosfera

- 4.1. Azaldu biodibertsitate kontzeptua eta bere garrantzia.
- 4.2. Azaldu zein diren espezieak desagertzeko arrazoi antropiko garrantzizkoenak.